# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Plangintza eta Hezkuntz Administraziorako Sailordetzaren «Lopez de Torre B.B.B.ko Ikastetxerako altzarial, hezkuntz materiala eta kirol ekipamendua hornitu, entregatu eta instalatzeko« kontratuen adjudikaziorako lehiaketa irekirako 1988ko Apiliraren 26ko ERABAKIA. 2553

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

RESOLUCION de 26 de Abril de 1988, de la Viceconsejería de Planificación y Administración Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se adjudica el contrato de «Suministro, entrega e instalación de mobiliario, material didáctico y material deportivo para el Centro I.B. Lopez de Torre de Gasteiz. 2553

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMIA-GARAPEN SAILA

**955**

89/1988 DEKRETUA, Aprilaren 19koa, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailaren egitura organikoa ezarriz.

ZIOEN ADIERAZPENA

Martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuz, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saila sortu eta bere egitekoak eta ekintza-eremuak zehaztu ondoren, honako hau da Dekretu honen xedea: Lehengo Lehendakaritza eta Zuzentza Sailaren egitura organikoa, egitekoak izendatzeak dakartzen beharrei eta konpetentzia berriak hartzeak sortutako egoerari egokitzea hain zuzen.

Sailak eraketa eta egitekoen mailan duen konplexutasuna ahal den neurrian gutxitzeko taiutu da Dekretu honen bidez ezartzen den egitura organikoa, honako hau egin dela horretarako, hots, izendatuta dituen egitekoen funtsezko muina hiru Sailordetzetan bildu, horietan bait dago azken finean Sail honen antolaketa-lana; horretaz gainera, beharrezko denean, iharduera-ren artikulaketarik egokienera jotzen dela, operatibitatez, razionaltasunez eta emankortasunez hornitutako bateratutako ekintza bermatuz.

Bestalde, Urriaren 23ko 339/1.984 Dekretuak ezartzen dituen antolaketa erizpideei jarraituz, kanpo mailako eragina duten organoak Administrazioan bertan dihardutenetatik bereiztu egin dira eta, dituzten egitekoen berezitasunagatik, hala eskatzen zutenei, tratamendu berezi bat eman zaiela.

Planteiamendu honen arabera, autonomia-garapenean nolabaiteko eragina duten ekintza-multzoa ematen zaio Lege-Errejimen eta Autonomia-Garapenerako Sailordetzari. Bi alde hartzen ditu ekintza-multzo horrek, alde positiboa eta alde negatiboa. Honako arlo hauek jasotzen ditu alde positiboak: Estatudo Administrazioarekin eta beste Administrazio batzurekin elkarlana egitea eta lankidetza izatea, Estatuaren transferentzia-politika eta arauen garapena orohar; alde negatiboak

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

**955**

DECRETO 89/1988, de 19 de Abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

EXPOSICION DE MOTIVOS

Creado el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico y determinadas sus funciones y áreas de actuación por el Decreto 27/1987, de 11 de Marzo, el presente Decreto tiene como finalidad adaptar la estructura orgánica del anterior Departamento de Presidencia y Justicia, a los requerimientos que entraña esa atribución funcional, así como a la situación creada por la asunción de nuevas competencias.

Para ello, la estructura orgánica establecida por este Decreto se ha diseñado con el propósito de simplificar en lo posible la complejidad orgánica y funcional del Departamento, mediante la concentración del núcleo fundamental de las funciones que tiene atribuidas, en las tres Viceconsejerías en las que descansa esencialmente su organización, acudiéndose, cuando resulta preciso, a la articulación funcional más adecuada para garantizar una acción de conjunto dotada de la necesaria operatividad, racionalidad y eficacia.

Por otra parte, siguiendo el criterio organizativo adoptado por el Decreto 339/1984, de 23 de Octubre, se han diferenciado los órganos de proyección externa de los que actúan hacia la propia Administración, dando un tratamiento separado a los que, por razón de la especificidad de sus funciones, así lo requerían.

De conformidad con ese planteamiento, se han encuadrado en la Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, el conjunto de funciones que de una u otra forma inciden en el desarrollo autonómico, tanto en la vertiente positiva que comprende la cooperación y la colaboración con la Administración del Estado y con otras Administraciones, la política de transferencias con el Estado, el desarrollo normativo en general, como en la negativa o conflictual centrada esencialmen-

edo arazokoiak, Estatutoaren lege-babesketa hartzen du bereziki. Lege-Zerbitzu Nagusien Burutza ere aipatutako Sailordetzari ematen zaio, Autonomia-Administrazioko Goreneko Aholku-Zentru gisa antolatzen dela Burutza hori.

Funtzio Publiko, Antolaketa eta Sistema, Instituzio Harreman eta Toki Administrazio eta Zerbitzu Nagusien arloei dagozkienetan, zuzendaritza-zentru bakarrari izendatu zaizkio horiek dituzten egitekoak, hots, Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzari alegia, horrela jokatzearen zioa honako hau izan dela: Sail guztienak izan eta Administrazioaren funtzionamendu orokorrean, horien razionaltasunean eta emankortasunean ezinbesteko eragina duten arlo horietan, Jaurlaritzako Sail ororen ekintza-batasuna bermatzea hain zuzen.

Bere ekintza Administrazioz kanpo hedatzen deneko organu bat da Zuzentza Sailordetza, lehen esan denaren arabera. Hiru Zuzendaritza ditu bere egiturak. Lehenengoari Zuzentza-Administrazioaren Antolaera eta Baliabide Materialen ardura bizkarreratzen zaio eta, bigarrenari, Baliabide Pertsonalak eta Kudeaketa Ekonomikoa. Bi Sailordetza hauen bidez, Autonomia Elkarteko Zuzentza-Administrazioaz arduratzen da Sailordetza, Zuzentzaren funtzionamendua hobetzeko beharrezko diren medioez eta baliabideez Autonomia Elkartea hornitu ahal izateko. Presondegi-Zerbitzuez arduratuko da hirugarren Zuzendaritza. Arlo honi buruzko transferentziak oraindik eskuratu ez direnez, Presondegi-Zerbitzuen eskuraketa gertatzeko burutu behar diren ekintzen ardura duen organu gisa hartzen da oraingoz hirugarren Zuzendaritza hau, zerbitzu horiek hobetzeko jadanik burutzen diren ekintzak bere ihardun-eremu barruan gauzatu ditzanaren kaltetan gabe.

Azkenik, tratamendu berezia ematen zaie beste organu batzuri: Sailei erabat ez dagozkien egitekoak betetzeko bide direnei, adibidez, Sail honetako Sailburua Jaurlaritzako Idazkari izateari darizkion Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzari dagozkionak betetzen dituzten organoei; edo Administrazio osoaren ihardun emankor bat bermatu ahal izateko tratamendu koordinatu bat eskatzen duten eta sailarteko eragina duten ekintzak izendatuta dituzten organoei, adibidez, Europako Komunitateekiko Arazoetarako Kabinetea; edo, Sailaren barne mailako eta beste batzurekiko harremanetarako egitekoak dituzten organoei, hau da, Sailaren barne-funtzionamenduari dagozkion egitekoak betetzeko eta Sail guztiekikoak diren arloetan Jaurlaritzako gainontzeko Sailekiko harremanetarakoak direnei alegia, adibidez, Zerbitzu-Zuzendaritza.

Horiek horrela, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza-Kontseiluak 1988.eko Apirilaren 19an egindako batzarrean aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## LEHENENGO ATALBURUA ANTOLAERA OROKORRA

*1. Artikulua.–* Martxoaren 11ko 27/1.987 Dekretuko 4. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako organu bat da Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saila, honako hauek direla bere egitekoak: Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzarekikoak; eta Administrazio Antolaeraren eta Funtzio Publikoaren, Zuzentza Administrazioaren, Erre-

te en la defensa jurídica del Estatuto. Asimismo, se hace radicar en dicha Viceconsejería, la Jefatura de los Servicios Jurídicos Centrales configurándola como Centro Superior Consultivo de la Administración Autónoma.

En cuanto a las áreas de Función Pública, Organización y Sistemas, Relaciones Institucionales y Administración Local, y Servicios Centrales, las funciones relativas a los mismos, se han asignado a un sólo centro directivo, la Viceconsejería para la Administración y la Función Pública, a fin de garantizar la unidad de actuación de los Departamentos del Gobierno, en estas materias que son comunes a todos ellos, y tienen una capital importancia en el funcionamiento general de la Administración, y en su racionalidad y eficacia.

La Viceconsejería de Justicia, es, como se ha señalado, un órgano cuya acción se despliega hacia el exterior de la Administración. Su estructura se basa en tres Direcciones que se ocupan, las dos primeras de la Organización y los Recursos Materiales de la Administración de Justicia y, de los Recursos Personales y la Gestión Económica, respectivamente. A través de ellas, la Viceconsejería se proyecta sobre la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma, con el fin de dotarla de los medios e instrumentos precisos para mejorar su funcionamiento. La tercera Dirección, es la de Servicios Penitenciarios, la cual pendiente todavía de realizarse las transferencias correspondientes a esta materia, se concibe de momento como órgano encargado de llevar a cabo las actuaciones preparatorias para la asunción de aquellas, sin perjuicio de las que dentro de su ámbito funcional ya se vienen realizando para la mejora de dichos servicios.

Por último, el Decreto da un tratamiento separado a los órganos que bien, sirven de instrumento para el ejercicio de funciones no estrictamente departamentales, como las relativas a la Secretaría del Gobierno y a las Relaciones con el Parlamento, derivadas de la condición de Secretario del Gobierno del Consejero titular del Departamento, bien tienen asignadas unas funciones de dimensión interdepartamental que reclaman un tratamiento coordinado que garantice una actuación eficaz del conjunto de la Administración, como el Gabinete para los Asuntos relacionados con las Comunidades Europeas, o bien, finalmente, tienen un carácter reflexivo y al tiempo relacional, para el ejercicio de funciones referidas al funcionamiento interno del Departamento y de relación con los demás Departamentos del Gobierno en materias comunes a todos ellos, caso de la Dirección de Servicios.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Gobierno en su Sesión de 19 de Abril de 1988,

DISPONGO:

## CAPITULO PRIMERO ORGANIZACION GENERAL

*Artículo 1.–* De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 27/1987, de 11 de marzo, el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponde la Secretaría del Gobierno y las Relaciones con el Parlamento, así como las áreas de Organización Administrativa y Función Pública, de Administración de

jimen Juridikoaren eta Autonomia Garapenaren, eta Europako Komunitateekiko Araozen arloekikoak gainera.

*2. Artikulua.–* Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailaren egiturak, honako organo hauek izango ditu, aurreko artikuluan aipatutako arloei dagozkien egintеak burutu ahal izateko:

1. Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzako Zuzendaritza.

2. Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapenerako Sailordetza.

2.1. Errejimen Juridiko Zuzendaritza.

2.2. Lege Garapen eta Arau-Kontrolerako Zuzendaritza.

2.3. Transferentzia Zuzendaritza.

2.4. Auzipide Zuzendaritza.

3. Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetza.

3.1. Negoziazio Kolektibotarako Zuzendaritza.

3.2. Funtzio Publikorako Zuzendaritza.

3.3. Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritza.

3.4. Instituzio Harremanetarako eta Toki Administraziorako Zuzendaritza.

3.5. Zerbitzu Nagusietako Zuzendaritza.

4. Zuzentza Sailordetza.

4.1. Antolaketa eta Baliabide Materialen Zuzendaritza.

4.2. Baliabide Pertsonalen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.

4.3. Presondegi-Zerbitzuen Zuzendaritza.

5. Europako Komunitateekiko Arazoetarako Kabinetea.

6 Zerbitzu Zuzendaritza.

*3. Artikulua.–* 1. Uztailaren 27ko 16/1.983 Legeak ezartzen duenaren arabera, Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzaren bidez eta Instituzio Harremanetarako Toki Administraziorako Zuzendaritzaren bidez, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailari atxikita gelditzen da Instituto Vasco de Administración Pública/ Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (I.V.A.P./H.A.E.E.).

2. Otsailaren 1eko 60/1.982 Dekretuz sortutako Sociedad de Informática del Gobierno Vasco, S.A./Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea, A.B., ere Sail honi atxikitzen zaio, Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzaren pean gelditzen dela funtzionalki Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzaren bidez.

*4. Artikulua.–* Dekretu honetako 23. artikuluan aipatu, Europako Komunitateekiko Arazoetarako den eta Bruselaseko Bulegoa honetan sartzen deneko Kabinetea, Sail honetako Sailburuaren pean egongo da organikoki eta Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapenerako Sailordetzaren pean funtzionalki.

*5. Artikulua.–* Saileko politikaren gainbegiraketan eta zaintzan, bere ihardunen plangintza orokorrean eta izenda dakizkion arazo guztietan, Saileko Zuzendaritza-Kontseiluak lagunduko dio Sailburuari.

Justicia, de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y de Asuntos Relacionados con las Comunidades Europeas, según lo establecido en el presente Decreto.

*Artículo 2.–* Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico se estructura en los siguientes órganos:

1. Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

2. Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

2.1. Dirección de Régimen Jurídico.

2.2. Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo.

2.3. Dirección de Transferencias.

2.4. Dirección de lo Contencioso.

3. Viceconsejería para la Administración y la Función Pública.

3.1. Dirección de Negociación Colectiva.

3.2. Dirección de Función Pública.

3.3. Dirección de Organización y Sistemas.

3.4. Dirección de Relaciones Institucionales y Administración Local.

3.5. Dirección de Servicios Centrales.

4. Viceconsejería de Justicia.

4.1. Dirección de Organización y Recursos Materiales.

4.2. Dirección de Recursos Personales y Gestión Económica.

4.3. Dirección de Servicios Penitenciarios.

5. Gabinete para asuntos relacionados con las Comunidades Europeas.

6. Dirección de Servicios.

*Artículo 3.–* 1. Queda adscrito al Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, conforme determina la Ley 16/1983, de 27 de julio, por medio de la Viceconsejería para la Administración y la Función Pública, a través de la Dirección de Relaciones Institucionales y Administración Local, el Organismo Autónomo Instituto Vasco de Administración Pública/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (I.V.A.P./H.A.E.E.).

2. Se adscribe asimismo a este Departamento la Sociedad de Informática del Gobierno Vasco, S.A./Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, A.B., constituida mediante Decreto 60/1982, de 1 de febrero, que dependerá funcionalmente de la Viceconsejería para la Administración y la Función Pública a través de la Dirección de Organización y Sistemas.

*Artículo 4.–* El Gabinete para Asuntos relacionados con las Comunidades Europeas, contemplado en el artículo 23 del presente Decreto, y en el que se encuadra su Oficina en Bruselas, dependerá orgánicamente del Consejero titular del Departamento, y funcionalmente del Viceconsejero de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

*Artículo 5.–* El Consejo de Dirección del Departamento, asistirá a su titular en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados.

Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza-Kontseilua, Sailburuaren goi mailako zuzendaritzapean: Sailburuordeek, Zerbitzu Zuzendariak, Idazkaritza-lana egingo duen Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkariak, eta Sailburuak, landu behar diren gaien arabera, izenda ditzan pertsonek.

## BIGARREN ATALBURUA
## SAILBURUAZ

*6. Artikulua.–* Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 20. eta 26. artikuluek ezartzen dituzten aginteak erabiltzea dagokio, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Sailburuari eta, martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuaren indarrez, Sailari dagozkion egite-arloan eta ekintza-eremuan indarrean dauden legeek izenda dakizkiotenak.

*7. Artikulua.–* 1. Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritza arloan, Sailburuak izendatuta dituen aginteak erabiltzeko, honako egiteko hauek burutuko ditu izen bereko Zuzendaritzak:

1) Jaurlaritzako Idazkaritza arloan:

a) Jaurlaritza Kontseiluaren Batzarrak gertatzea; horietarako Gaizerrendak eta azterketaren gai izango diren gaiak ezagutzeko beharrezko diren agiriak, aurrekinak eta datuak gertatzea eta banatzea; erabakiak tramitatzeko eta, hala behar izan dadinean, horiek balioa izan dezaten beharrezko diren lege eta finantzaketa mailako baldintzak bete daitezela zaintzea eta, .beharrezko bada, legezko txostenak bilatuko dituela.

b) Onarpenaren gai izan diren erabakiei buruzko Aktak gertatzea eta zaintzea, bete daitezen zainduz.

c) Autonomia Elkarteko Aldizkari Ofizialean sartu behar diren erabakiak eta administrazio-ekintzak argitara daitezela agintzea eta hori egin den ala ez zaintzea eta bereziki honako hauek egitea, hau da, sartu behar direneko lehentasun-hurrenkeraz eta kasu bakoitzean bete behar diren baldintza formalak bete daitezela zaintzea, Administrazioko organu ezberdinen aginteak gorde ahal izateko.

d) Jaurlaritza Kontseiluaren lanei buruzko agirien informatika-tratamendua.

e) Jaurlaritza Kontseiluaren ihardunen programazio eta lege-egutegiari, egin behar dituen lanen antolakuntza eta erakuntzari, erabakien kalitateari, azterketaren gai izango diren ekintzei eta programa betetzen deneko mailari buruzko txostenak eta proposamenak lantzea.

f) Administrazio berak eman ditzan agiriak autentikatzea, beste organu batzuri legez legozkiekeen antzeko egitekoen kaltetan gabe eta horretarako ezar daitezen arauen arabera.

2) Legebiltzarrarekiko Harreman arloan:

a) Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harreman eta komunikazio-organu gisa ihardutea.

b) Lege-programa, Legebiltzarreko aldian dagoenean, ikertze, zaintze eta koordinatze-lanak burutzea eta honako hauek ere bai: Ikerketak, agiri-topaketa lanak eta gerteketa-ekintzak egitea, Legebiltzarraren aurrean aurkez daitezkeen Lege-Proposamenei, Lege mailakoak ez diren Proposamenei eta Mozioei onarpena emateari

Bajo la superior dirección del Titular del Departamento, el Consejo de Dirección estará integrado por los Viceconsejeros, el Director de Servicios, el Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, que actuará como Secretario del mismo, y aquellas otras personas que determine el Consejero, en función de los asuntos a tratar.

## CAPITULO SEGUNDO
## DEL CONSEJERO TITULAR DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 6.–* Corresponde al Consejero Titular del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 20 y 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, Ley de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 27/1987, de 11 de marzo.

*Artículo 7.–* 1. Para el ejercicio de las competencias atribuidas al Consejero del Departamento en materia de Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, la Dirección de ese mismo nombre, realizará las siguientes funciones:

1) En las materias relativas a la Secretaría del Gobierno:

a) Preparar las Sesiones del Consejo de Gobierno; preparar y distribuir el Orden del Día de las mismas y la documentación, antecedentes y datos que aquél precise para conocer los asuntos sometidos a su deliberación; cuidar del cumplimiento de los requisitos de legalidad jurídica y financiera necesarios para la tramitación y, en su caso, validez de los acuerdos, recabando, cuando sea preciso, los informes preceptivos.

b) La preparación y custodia de las Actas de los acuerdos adoptados velando por su ejecución.

c) La ordenación y control de la publicación de las disposiciones y actos administrativos que deban insertarse en el diario oficial de la Comunidad Autónoma, velando especialmente por el Orden de prioridad de las inserciones y el cumplimiento de los requisitos formales necesarios en cada caso, en orden a salvaguardar las competencias de los distintos órganos de la Administración.

d) El tratamiento informático de la documentación relativa a los trabajos del Consejo de Gobierno.

e) Elaborar informes y propuestas relativos a la programación de la actividad del Consejo de Gobierno y su calendario legislativo, sobre la organización y ordenación de los trabajos del mismo, la calidad de las disposiciones y actos que se sometan a su deliberación, y el grado de cumplimiento de su programa.

f) Autenticar los documentos que emanen de la misma Administración, sin perjuicio de las funciones análogas que legalmente correspondan a otros órganos conforme a la normativa que al efecto se establezca.

2) En materia de Relaciones con el Parlamento:

a) Actuar como órgano de relación y comunicación entre el Gobierno y el Parlamento.

b) Ejercer funciones de estudio, seguimiento y coordinación, en fase parlamentaria, del programa legislativo, así como los estudios, trabajos de documentación y actuaciones preparatorias en orden a la formación del criterio del Gobierno con respecto a la toma en consideración de las Proposiciones de Ley, y a las

edo ez emateari dagozkionetan Jaurlaritzak erizpideak gerta ditzan; horietan agintea duten Administrazioko organuengandik, Kameraren aurrean aurkez daitezkeen iniziatiba horiei, galdera eta interpelazioei buruzko argibideak jasotzea; horiek ikertzea, Sail ezberdinei txostenak eta laguntza eman ahal izateko; Legebiltzarrak Jaurlaritzari ezar dakizkiokeen konpromezuen jarraipena egitea eta, orohar, Legebiltzarreko ihardunei buruzko informapena Jaurlaritzari ematea.

2. Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzaren Zuzendaritzari atxikita egongo den Kabinete Tekniko bat izango da, Sailburuari teknika mailako laguntza, aholkuak eta babesa ematea izango dela bere egitekoa.

HIRUGARREN ATALBURUA
SAILORDETZEZ

*8. Artikulua.–* Honako hauek dagozkie, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Saileko Sailburuordeei:

1. Sailordetzaren ekintzen buru izatea, horiek koordinatzea, bultzatzea eta gainbegiratzea.

2. Ekintza politikak lantzea eta Sailburuari horiek proposatzea.

3. Teknika mailako laguntza Sailburuari ematea, horien ardura duteneko egitekoen eremu barruan.

4. Erabaki-projektuekiko proposamenak egitea, aurrez ezarrita dagoen ekintza-politikaren arabera.

5. Sailodertzako ihardunen programaketa.

6. Haien ardura duteneko zerbitzuen egoera, koste eta rendimenduei buruzko berriak Sailburuari ematea aldian-aldian.

7. Sailordetzaren pean dauden zuzendaritza-zentruen eta erakundeen funtzionamenduaren ikuskaketa egitea eta kontrola eramatea.

8. Eta, orohar, indarrean dauden legeek izenda diezazkioten egiteko guztiak.

LEHENENGO SEKZIOA
Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapen Sailordetzaz

*9. Artikulua.–* 1. Jaurlaritzaren Goreneko mailako Kontsulta-Zentrua eta juridiko mailako aholku emailea da Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapen Sailordetza, Zerbitzu Juridiko Nagusien Burutza dagokiola.

2. Honako hauek dagozkio Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapen Sailordeari: 8. artikuluan aipatzen diren funtzioak erabiltzea, errejimen juridiko, auzipide-ihardun eta autonomia-garapen arloei dagozkienetan eta, bereziki, ondoren aipatzen direnen burutza eta horiei indarra ematea:

a) Estatuto-garapena eta, bereziki, Estatuaren zerbitzuen transferentziak Autonomia Elkarteko konpetentziei dagozkienetan.

b) Estatuarekiko koordinakuntza eta lankidetza-politika autonomia-garapenaren gain eragina izan dezaketen arazo guztietan, horretarako sortuta dauden edo sor daitezkeen bitariko organuetan parte hartuz.

3. Honako hau ere badagokio Errejimen Juridiko eta Autonomia-Garapen Sailburuordeari, hots, ekipo eta

Proposiciones no de Ley y Mociones que se presenten ante el Parlamento; recabar de los órganos competentes de la Administración la información que se relacione con dichas iniciativas y con las preguntas e interpelaciones formuladas ante la Cámara, y proceder a su estudio a efectos de informe y asistencia a los distintos Departamentos, así como realizar el seguimiento de los compromisos que el Parlamento imponga al Gobierno, y en general, mantener informado el Gobierno sobre la actividad parlamentaria.

2. Integrado en la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, existirá un Gabinete Técnico con funciones de apoyo, asesoramiento y asistencia técnica al Consejero del Departamento.

CAPITULO TERCERO
DE LAS VICECONSEJERIAS

*Artículo 8.–* Corresponde a los Viceconsejeros del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico:

1. La dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de la Viceconsejería.

2. La elaboración y propuesta al Consejero de políticas de actuación.

3. Prestar asistencia técnica al Consejero en el ámbito de las funciones que tengan encomendadas.

4. La propuesta de proyectos de disposiciones, de conformidad con la política de actuación establecida.

5. La programación de las actividades de la Viceconsejería.

6. Dar cuenta periódicamente al titular del Departamento de la marcha, coste y rendimiento de los servicios que tengan encomendados.

7. Inspeccionar y controlar el funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

8. Y, en general, cuantas funciones les atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

SECCION PRIMERA
De la Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico

*Artículo 9.–* 1. La Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico es el Centro Consultivo Superior y de asesoramiento jurídico del Gobierno, al que corresponde la Jefatura de los Servicios Jurídicos Centrales.

2. Corresponde al Viceconsejero de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico el ejercicio de las funciones previstas en el artículo 8, en materia de, régimen jurídico, actividad contenciosa y desarrollo autonómico y, en particular, la dirección e impulso de:

a) El desarrollo estatutario y, en particular, las transferencias de servicios del Estado relativas a las competencias de la Comunidad Autónoma.

b) La política de coordinación y colaboración con el Estado en todas aquellas cuestiones que puedan afectar al desarrollo autonómico, participando en los órganos mixtos creados o que se creen a ese efecto.

3. Compete asímismo, al Viceconsejero de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico la dotación, en coor-

eskuarte materialez, Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuz, Sailordetza hornitzea. Horretarako, bere pean egongo dira, sarrera eta irteera Errejistroak, Liburutegia eta Sailordetzaren Artxiboa.

*10. Artikulua.*– 1. Honako hauek dagozkio Errejimen Juridiko Zuzendaritzari:

a) Estatuaren eta Autonomia Elkartearen arteko instituzio-lankidetza politika burutzea autonomia-garapen arazoei dagozkienetan; horietarako sor daitezkeen bitariko organuetan parte hartuko duela.

b) Ikerketak egitea eta erizpenak ematea konstituzionaltasunari buruzko arazo orokorrei eta, bereziki, Euskal Herriko Autonomia Elkartearen eta Estatuaren, haren eta beste Autonomia Komunitate batzuren, Foru Instituzioen eta Toki Instituzioen arteko konpetentzien banaketari dagozkionetan.

c) Inkonpetentzia-arazoak eta epaiketan sartu aurreko gainontzeko legebideak lantzea eta horiei buruzko proposamenak egitea, Jaurlaritza Kontseiluak, konpetentzia-arazoak direla eta, beste Lurralde-Erakunde batzuren aurka horrelakoren bat sartzea erabaki dezanean. Egiteko berak izango ditu, Eusko Jaurlaritzari planteia dakizkioten konpetentzia-arazoei dagozkienetan.

d) Autonomia Elkartearen eta gainontzeko Lurralde-Izaikien artean sor daitezkeen konpetentzia-arazoak direla eta, egon daitezkeen negoziazioetako eta sor daitezkeen organuetako eta batzordeetako Autonomia Administrazioko ordezkariei aholkuak ematea.

e) Eusko Jaurlaritzako ordezkarien zuzendaritza eramatea eta horren interesen defentsa egitea Konstituzio Epaitegiaren aurrean, Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoak ezartzen dituen edozein prozeduretan.

f) Eusko Jaurlaritzako ordezkarien zuzendaritza eramatea eta horren interesen defentsa egitea Autonomia Estatutoko 39. artikuluak ezartzen dituen Ebazpen Batzordeen aurrean, horiek garatu ditzan Legeak arautzen dituen edozein prozeduretan.

2. Errejimen Juridiko Zuzendaritzak, Instituzio-Harremanetarako eta Toki Administraziorako Zuzendaritzarekin bat eginez, parte hartuko du deskribapenaren gai izan diren egitekoetan Foru eta Toki mailako Instituzioekikoak izan daitezenean.

3. Errejimen Juridiko Zuzendaritzari dagokio, Autonomia-Arazoen Zaintzarako eta Koordinakuntzarako Batzordearen buru izatea. Jaurlaritzako gainontzeko Sailetako ordezkariek parte hartuko duteneko Batzorde honek, lagundu egingo du Estatuak eta gainontzeko Lurralde Izaikiek eman ditzaketen erabakien eta gauzatu ditzaketen ekintzen zaintza eta kontrolean eta bai sektore mailako lankidetzari buruzko arazoen tratamenduan ere.

*11. Artikulua.*– Honako hauek dagozkio Lege-Garapen eta Arau-Kontrolerako Zuzendaritzari:

a) Jaurlaritzaren lege-kalendarioa teknikoki eta juridikoki artikulatzeko argibideak eta aholkuak ematea horrek hartzen dituen Lege-Aurreprojektuak lantze-bidean eta bai legeak garatu ditzaten arau-projektuei dagozkienetan ere, horretan interesa izan dezaketen Sailen arteko beharrezko koordinakuntza sustatuko duela horretarako.

b) Ihardunean dauden lege-prozedurei buruzko berriak ematea, Jaurlaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzako Zuzendaritzarenak diren

dinación con la Dirección de Servicios, de equipos y medios materiales para la Viceconsejería. A tal efecto, dependen del mismo los Registros de entrada y salida, la Biblioteca y el Archivo de la Viceconsejería.

*Artículo 10.*– 1. Corresponde a la Dirección de Régimen Jurídico:

a) La ejecución de la política de colaboración institucional entre el Estado y la Comunidad Autónoma en cuestiones relativas al desarrollo autonómico, participando, para ello, en los órganos mixtos que se creen a tales efectos.

b) La elaboración de estudios y dictámenes relativos a cuestiones generales de constitucionalidad y, en particular, las relativas a la distribución de competencias entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado, otras Comunidades Autónomas y las Instituciones Forales y Locales.

c) La elaboración y propuesta de los requerimientos de incompetencia y demás trámites de carácter prejudicial que el Consejo de Gobierno decida promover frente a otras Entidades Territoriales, con ocasión de conflictos competenciales. Realizará idénticas funciones con respecto a los requerimientos competenciales que le sean planteados al Gobierno Vasco.

d) El asesoramiento a la representación de la Administración Autónoma en las negociaciones, órganos y comisiones que se constituyan con ocasión de los conflictos competenciales que puedan surgir entre la Comunidad Autónoma y demás Entes Territoriales.

e) La dirección de la representación y defensa de los intereses del Gobierno Vasco ante el Tribunal Constitucional, en cualquiera de los procedimientos previstos en la Ley Orgánica 2/1979, de 3 de octubre.

f) La dirección de la representación y defensa de los intereses del Gobierno Vasco ante las Comisiones Arbitrales previstas en el artículo 39 del Estatuto de Autonomía, en cualquiera de los procedimientos que regule la Ley que las desarrolle.

2. La Dirección de Régimen Jurídico actuará en coordinación con la Dirección de Relaciones Institucionales y Administración Local, en las funciones descritas cuando sean relativas a las Instituciones Forales y Locales.

3. Corresponde al Director de Régimen Jurídico, la presidencia de la Comisión de Seguimiento y Coordinación de Asuntos Autonómicos. Esta Comisión, en la que participarán representantes de los demás Departamentos del Gobierno, coadyuvará al seguimiento y control de las disposiciones y actos emanados del Estado y demás Entes Territoriales, y al tratamiento de cuestiones relativas a la cooperación sectorial.

*Artículo 11.*– Corresponde a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo:

a) Informar y asesorar sobre la articulación técnico-jurídica del Calendario legislativo del Gobierno, en el curso de la elaboración de los Anteproyectos de Ley incluídos en aquél, así como sobre los proyectos de disposiciones que lo desarrollen, promoviendo, a tales efectos, la coordinación precisa entre los Departamentos interesados.

b) Informar sobre los procedimientos legislativos en curso, sin perjuicio de las funciones propias de la

egiteko propioen kaltetan gabe eta Zuzendaritza horrekin bere lana koordinatuz.

c) Jaurlaritza Kontseiluak onarpena eman behar dien Lege-Aurreprojektuen eta erabaki arauemaileen legezkotasuna barnetik zaintzea, indarrean dauden legeei egokitzen zaizkien ala ez egiaztatzeko.

Era berean, Aurreprojektu eta Projektu horiekiko oharrak egin eta tekniko-juridiko mailako gehiketak sartzearen buzipenak ere egin ahal izango ditu.

d) Lege-Aurreprojektuak eta orokortasuna duten erabaki-projektuak teknikoki lantzea Sailaren agintepekoak izan daitezen gaietan edo beste batzuri izendatutakoetan hauek hala eska diezaiotenean.

Aztertu beharreko gaia dela eta, halako edo holako Lege-Aurreprojektuak eta orokortasuna duten erabaki-aurreprojektuak lantzeko agintea beste Sail batzuri izendatuta egon dadinean, behar izan dezaten laguntza teknikoa eskainiko die Zuzendaritza honek.

e) Interesa duten Sailek hala eskatuta, hauen agintepeko arazoei buruzko juridiko mailako erizpideak ematea edo txostenak lantzea.

f) Defentsa juridikoa egiteko ardura duten organuentzako txostenak lantzea eta horiei aholku juridikoak ematea, hura lantzen parte hartu dueneko erabakiren baten gain jazarpena egotea gerta dadinean.

*12. Artikulua.*– Honako hauek dagozkio Transferentzia Zuzendaritzari:

a) Autonomia Estatutoko Aldibaterako Erabakietatik Bigarrenak ezartzen duen Transferentzietarako Bitariko Batzordeko Idazkaritza-lana egingo du.

b) Estatutik Autonomia Elkarterako transferentzi-prozesuaren egoerari buruzko beharrezko ikerketak egitea eta Jaurlaritzari aholkuak ematea.

c) Jaurlaritza hartzaile izan dadineko transferentzi-prozesuei buruzko aholkuak ematea Jaurlaritzari eta, bereziki, Transferentzietarako Bitariko Batzordean dituen ordezkariei.

d) Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailaren eta transferentzietako arlo-prozesu bakoitzean parte hartzen duten Jaurlaritzako gainontzeko organuen arteko koordinakuntza egitea eta, Herriogasun eta Dirubideetarako Sailarekin, etengabekoa, baloraketak egiteári dagozkionetan.

e) Tranferentzietarako Bitariko Batzordearen Erabaki-projektuak eta geroagoko Dekretu-Projektuak teknikoki lantzea eta gertatzea.

f) Transferentziaren gai izan daitezkeen zerbitzuen, giza eta material mailako baliabideen destinoak eta adskribapenak ekar ditzaketen arazo juridikoei buruzko aholkuak Jaurlaritzari eta horietan interesa duten Sailei ematea.

g) Lurralde Hisotorikoei transferentziak egitea dela eta, parte hartzen duten edo hartuko duten organuetako partaide izatea Sailaren izenean eta hala behar izan dadinean.

h) Autonomia Administrazioaren eta Estatuko Administrazioaren arteko eta beste Autonomia Elkarte Batzutako Administrazioen arteko koordinakuntza egitea eta, hala behar izan dadinean, sektore mailako lankidetzako prozesuetan parte hartzea.

Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento y en coordinación con élla.

c) El control interno de legalidad de los Anteproyectos de Ley y de los proyectos de disposiciones reglamentarias que deban ser aprobados por el Consejo de Gobierno, a fin de comprobar su adecuación al ordenamiento vigente.

Asimismo, formulará observaciones y sugerirá la inclusión de aportaciones de carácter técnico-jurídico a dichos Anteproyectos y Proyectos.

d) La elaboración técnica de Anteproyectos de Ley y de proyectos de disposiciones de carácter general en materias de competencia del Departamento, o en las atribuidas a otros, cuando sea solicitada por éstos.

Cuando, por razón de la materia de la que se trate, otros órganos del Departamento tengan atribuida la competencia para la elaboración de determinados Anteproyectos de Ley y de disposiciones de carácter general, recibirán el apoyo técnico que precisen de esta Dirección.

e) La elaboración, a requerimiento de los Departamentos interesados, de dictámenes o informes jurídicos sobre cuestiones de la competencia éstos.

f) La elaboración de informes y el asesoramiento jurídico a los órganos encargados de la defensa jurisdiccional, cuando recaiga impugnación sobre disposiciones en cuyo procedimiento de elaboración hubiere intervenido.

*Artículo 12.*– Corresponde a la Dirección de Transferencias:

a) Desempeñar la Secretaría de la Comisión Mixta de Transferencias prevista en la Disposición Transitoria Segunda del Estatuto de Autonomía.

b) Realizar los estudios precisos y asesorar al Gobierno sobre el estado del proceso de transferencias del Estado a la Comunidad Autónoma.

c) Asesorar al Gobierno, y en especial a sus representantes en la Comisión Mixta de Transferencias, sobre todos los procesos de transferencias de las que sea destinatario.

d) La coordinación entre el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico y los demás órganos del Gobierno implicados en cada proceso sectorial de transferencias y la permanente con el Departamento de Hacienda y Finanzas con respecto a la realización de las valoraciones correspondientes.

e) La elaboración y preparación técnica de los proyectos de Acuerdos de la Comisión Mixta de Transferencias y de los Proyectos de Decretos ulteriores.

f) Asesorar al Gobierno y a los Departamentos interesados sobre las cuestiones jurídicas vinculadas al destino y a la adscripción de los servicios y recursos personales y materiales afectos, que sean transferidos.

g) En su caso, participar, en representación del Departamento, en los órganos que actúen o hayan de actuar a propósito de las transferencias a los Territorios Históricos.

h) La coordinación y, en su caso, la participación en los procesos de cooperación sectorial, entre la Administración Autónoma y la Administración del Estado y las Administraciones de otras Comunidades Autónomas.

i) Autonomia Administrazioaren eta Foru eta Toki Administrazioen arteko sektore mailako lankidetzako prozesuetan parte hartzea.

*13. Artikulua*.– Honako hauek dagozkio Auzipide Zuzendaritzari:

a) Autonomia Elkarteko Administrazio Nagusiaren ordezkotzaren eta defentsaren buru izatea epaiketetan, ohizko jurisdikzioaren aurreko edozein prozeduretan.

b) Instituzio Administrazioaren ordezkotzaren eta defentsaren buru izatea epaiketetan, dituen berezitasun propioak kontutan hartuz ezar daitezkeen espezifikazioen kaltetan gabe.

c) Prozedura bakoitzean interesa duten Sailen eta erakundeen koordinakuntza, inpugnazio bakoitzari dagozkion administrazio-espedienteak erasota gel daitezen eta bidaltzeko xedez.

d) Jaurlaritzari, Sailei eta erakudeei aholkuak ematea ohizko Epaimahaien aurrean edozein eratako ekintza sartzerakoan eta bai egon daitezkeen epaiketa-prozedurei buruzkoak ere.

e) Epai-ebazpenak betetzeak, epaiketa-gosteak biltzeak edo ordaintzeak, autonomia-ordenamenduari buruzko epai-ebazpenek izan dezaketen eraginak ekar ditzakeen ondorio administratiboei buruzko aholkuak ematea, txostenak lantzea eta horien zaintzea egitea eta bai, orohar, epaiketa-prozedurak ekar ditzakeen ondorioei buruzkoak ere.

f) Autonomia Elkarteko Administrazio Nagusiaren eta Instituzionalaren aurkako errekurtsoak edo reklamazioak sartzearen zio izan daitezkeen zergatiei buruzko txostenak lantzea, jazarpenak gutxiagotzeko edo alboratzeko bide diren eta administrazio-ekintzak zuzendu ditzaketen neurriak aditzera emanez.

BIGARREN SEKZIOA
Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzaz

*14. Artikulua*.– 1. Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailburuordeari dagokio 8. artikuluan finkatutako egitekoak burutzea, honako arlo hauek hain zuzen, hots, funtzio publikoa eta langilegoaren lege eta ordainketa-erregimena, administrazio-antolaketa eta argibide-sistemak, Autonomia Elkarteko Egunkari Ofiziala, erakundeen arteko harremanak eta Tokiko Administrazioa eta, honako hauei dagokienean bereziki:

a) Enpleguaren eskaintza publikoa gertatzea eta horren kudeaketa.

b) Langile-zerrenda organikuak gertatzea baita aurrekontuekikoen aurreproiektua ere eta horien jarraipena.

c) Langileak behin-behingotasunez kontratatzeko baimena, Jaurlaritza Kontseiluak horretarako ezarritako modalitate eta eskakizunen arabera.

d) Zerbitzuen ikuskaritza orokorra, Administrazioaren ihardunaren razionaltasuna eta eraginkortasuna bermatzeko, kontuhartzailetzaren kontrolean Herriogasun eta Dirubide Sailari dagozkion aginteen kaltetan gabe.

e) Bereganaturik dituen iharduketa-alorretan beste Administrazio Publiko, sindikatu, komite edo langilegoaren ordezkotza duten gainontzeko organu batzuekin ezar daitezen elkarrizketa eta negoziaketetan Sailaren ordezkapena egitea.

i) La participación, en su caso, en los procesos de cooperación sectorial entre la Administración Autónoma y las Administraciones Forales y Locales.

*Artículo 13*.– Corresponde a la Dirección de lo Contencioso:

a) Dirigir la representación y la defensa en juicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma en cualquier procedimiento ante la jurisdicción ordinaria.

b) Dirigir la representación y la defensa en juicio de la Administración Institucional, sin perjuicio de las especificaciones establecidas en razón a sus propias peculiaridades.

c) La coordinación de los Departamentos y organismos interesados en cada procedimiento, a los efectos de su constancia y de la remisión de los expedientes administrativos correspondientes a cada impugnación.

d) El asesoramiento al Gobierno, a los Departamentos y organismos en orden a entablar cualquier acción ante los Tribunales ordinarios, así como sobre los procedimientos judiciales existentes.

e) El asesoramiento, la elaboración de informes y el control con respecto a los actos administrativos derivados de la ejecución de sentencias, recaudación o pago de costas procesales, la incidencia de sentencias sobre el ordenamiento autonómico y, en general, sobre las consecuencias derivadas de cada procedimiento judicial.

f) La elaboración de informes sobre las causas que motiven la interposición de recursos o reclamaciones contra la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma, sugiriendo medidas correctoras de la actuación administrativa tendentes a disminuir o evitar las impugnaciones.

SECCION SEGUNDA
De la Viceconsejería para la Administración y la Función Pública

*Artículo 14*.– 1. Corresponde al Viceconsejero para la Administración y la Función Pública el ejercicio de las funciones establecidas en el art. 8 en materia de función pública y régimen jurídico y retributivo del personal, organización administrativa y sistemas de información, Diario Oficial de la Comunidad Autónoma y publicaciones, relaciones institucionales y Administración Local y, en particular, con respecto a:

a) La elaboración y gestión de la oferta de empleo público.

b) La elaboración y seguimiento de las plantillas orgánicas y del Anteproyecto de las presupuestarias.

c) La autorización de las contrataciones de personal de carácter temporal, en los supuestos y conforme a las modalidades y requisitos establecidos para ello por el Consejo de Gobierno.

d) La inspección general de servicios, a efectos de garantizar la racionalidad y eficacia del funcionamiento de la Administración, sin perjuicio de las competencias que en materia de control inteventor, corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas.

e) La representación del Departamento en las conversaciones y negociaciones que, en las áreas de actuación que tiene atribuídas, se establezcan con otras Administraciones Públicas, sindicatos, comités u otros órganos de representación del personal.

f) Administrazioaren erreforma eta berorri eska dakizkiokeen zerbitzu publikoko beharrei egokitzea.

g) Hainbat Sail hartzen dituzten Eraikuntzak eta horietako zerbitzu nagusien kudeaketa.

2. Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailburuordearekiko menpetasun zuzena duela, Negoziaketa Kolektiboroko Zuzendaritzari dagokio gai horri buruzko arazoekiko aholkuak eta sorospena ematea, baita Sailburuordeak delegatutako egitekoak burutzea ere.

*15. Artikulua.*– 1. Zera dagokio Funtzio Publikorako Zuzendaritzari:

a) Administrazioaren zerbitzupeko langilegoaren lege-erregimen alorrean xedapen-proiektuak gertatzea.

b) Derrigorrez bete beharreko erizpenak ematea, Administrazioaren zerbitzupeko langilegoaren lege-erregimenarekin zerikusirik duten alor guztietan.

c) Langilegoaren alorrean izan daitezen gertaera administratibo eta laboralei buruzko txostena eta, hala behar izanez gero, horiek erabakitzea, indarrean dauden arauekin bat etorriz.

d) Administrazioan sartzeko baztertze-indarreko deialdietako baseak gertatzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (H.A.E.E.) koordinatuz.

e) Langilegoaren alorreango ikerketa-ikasketak eta azterlanak egitea eta bidezkoak diren proposamenak aurkeztea, Administrazio Publikoaren erreforma egokia burutzeko.

f) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (H.A.E.E.), langilegoa trebatzeko eta hobetzeko ikastaroak programatzeko eta horiek garatzeko proposamenak egitea.

g) Administrazio autonomikoaren zerbitzupeko langilegoaren ordainketa-sistemaz arduratzea.

h) Langilegoaren lan-egoera hobetzeko diren gizarte-izaerako zerbitzuak jartzeko eta, hala behar izanez gero, horietaz arduratzeko proposamena.

i) Ekainaren 6ko 1405/1986 Errege Dekretuz eta Otsailaren 28ko 75/1983 Dekretuz sortutako Langilego-Erroldea zuzentzea eta kudeatzea, horretarako ezarritako prozedurei jarraiki beste Sail batzuk parte-hartzearen kaltetan gabe.

j) Eta, orohar, funtzionariei buruzko legedia betetzen dela begiratzea, horren azterketa eta jarraipen egitekoak eta indarrean dauden xedapenek eskura diezazkionak gauzatuz.

2. Honako unitate hauek egongo dira Funtzio Publikorako Zuzendaritzaren menpe:

– Txostenak eta proiektuak.

– Orotariko gaiak.

– Administrazioa eta Langilego-Erroldea.

– Lan eta Gizarte Harremanak.

– Lanpostuak betetzea eta plantilen jarraipena.

*16. Artikulua.*– 1. Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari, honako hauek dagozkio:

f) La reforma y adecuación de la Administración a las necesidades del servicio público que se requiera de la misma.

g) La gestión de los Edificios Pluridepartamentales y sus servicios centrales.

